



Udal Ortuak

Otxarkoaga/Txurdinagako
aUZoan

Ortuak erabiltzeko eta ustiatzeko baimenak



Koordinatzaile: Ayuntamiento de Bilbao-Bilboko Udala

Irakurketa errazerako egokitzapena: Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza

Diseinua: Mercedes Corretge

Egile-piktogramak: Sergio Palao. **Jatorria:** ARASAAC (<http://catedu.es/arasaac/>).

Lizentzia: CC (BY-NC-SA)



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsoneri zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalitzen du.

1. UDAL ORTUEN PROIEKTUA	4
• Zer da?	
• Zertarako?	
2. OTXARKOAGA/TXURDINAGAKO UDAL ORTUAK	4
• Non daude?	
• Nolakoak dira?	
3. ONURADUN IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK ETA TALDEAK	6
4. BAIMENAK	6
• Nork kudeatzen ditu?	
• Zenbat denborarako dira?	
5. ORTUEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA	7
• Zer egin daiteke?	
• Zer ezin daiteke egin?	
6. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	7
• Eskubideak	
• Betebeharrak	
7. NOLA ESKATU BEHAR DA BAIMENA?	9
• Noiz eta non	
• Aurkeztu beharreko agiriak	
8. NOLA ESLEITZEN DA?	10
9. NOIZ AMAITZEN EDO KENTZEN DA BAIMENA?	10

1. UDAL ORTUEN PROIEKTUA

Zer da?




Bilboko Udalak herritarren esku jartzen duen proiektua da, herritarrek espazio bat izan dezaten modu **ekologikoan lantzeko**, naturan egoteko eta espazioa eta esperientziak komunitatean partekatzeko.

Baratze zaintza ekologikoa

Frutak, barazkiak, loreak eta abarrak haztea, ingurumenari kalterik egiten ez dioten produktuak eta teknikak erabilia.

Zertarako?



- Lurra modu ekologikoan lantzeko eta lur horren fruituak norberaren kontsumorako eskuratzeko.
- Ingurumenaren eta elikadura osasuntsuaren eta ortuetako produktuak kontsumitzearen garrantziaz ohartarazteko eta baratzeetako praktika eta ezagutza tradizionalak transmititzeko.

- Kulturaren eta aisialdiaren alorreko alternatibak eskaintzeko adin guztietako pertsoneri, betiere uriko ingurune natural batean eta **garapen** iraunkorraren barruan.

Garapen jasangarria

Gaur egungo beharizanak betetzen ditu, etorkizunekoak bermatzen ditu eta hazkuntza ekonomikoaren, ingurumenaren eta gizartearen ongizatearen arteko oreka mantentzen du.

2. OTXARKOAGA/TXURDINAGAKO UDAL ORTUAK


Non daude?

Ortuak Otxarkoagako auzoan daude.

Nolakoak dira?

- Lursail horretan 56 ortu daude. Ortu bakoitzak 40 metro karratu ditu.
- Hauek ere badaude lursailean:
 - Etxola 1 (aldagela eta banako armairuekin)
 - Laborantzako tresneria gordetzeko espazioa.

Gune horiek guztiak ortuetako erabiltzaile guztiek erabiltzeko dira.



3. ONURADUN IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK ETA TALDEAK



Artxandako ortuak Otxarkoaga eta Txurdinaga auzoetako bizilagun guztientzat dira.

Ortuak lursail-loteka banatuko dira.

- (Lursailak: 1etik 36ra) Auzoko bizilagunentzat.
- (Lursailak: 37tik 47ra) Langabezia luzaroan daramaten pertsonak.
- (Lursailak: 48tik 50ra) Desgaitasun fisikoa edo intelektuala duten pertsonak.
- (Lursailak: 51tik 54ra) Irabazi asmorik gabeko elkarteak.
- (Lursailak: 55 eta 56) Bilboko Eskolako Agenda 2030ekin zerikusia duten jardueretarako.

4. BAIMENAK

Nork kudeatzen ditu?

Lursailen jabea Udala da eta hortaz, hauen ardura ere Udalarena da:

- proiektu hau administratu, kudeatu eta zuzentzea.
- ortuak erabiltzeko baimenak ematea, baliogabetzea edo aldatzea, betiere arrazoiak justifikatuz.
- gorabehera juridikoak udaleko eskudun organora bideratzea.

Udala ez da erantzulea:


- erabiltzaileek izan ditzakeen kalteena.
- beste batzuk erabiltzaileei eragin diezazkieketen kalteena.

Zenbat denborarako dira?

Ortuak erabiltzeko baimena **2 urterako** emango da.
Beste **urtebete** luzatu ahal izango da modu automatikoan.
Baimenak ez du **3 urte baino gehiago** iraungo.

5. ORTUEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA

Zer egin daiteke?



- Lurra modu ekologikoan landu.


Lurreko materia organikoa handitu, **biodibertsitatea** zaindu eta higadura saihestuko duten praktikak bakarrik erabiliko dira lurra landu eta laboratzeko.

Biodibertsitatea
Planetan dauden bizitza formak.

Nekazaritzako ekologikoaren arloan ezagutzak dituztela erakutsi beharko dute erabiltzeek.


Nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza praktikoa emango da, nahitaezkoa

- Ur-hargune bat izan.
- Nekazaritzako lanabesak gordetzeko erabiltzaile guztientzako espazioa erabili.


 Ortuak erabiltzeko ordutegia		
Urteko egun guztietan	Udazkenean eta neguan	8.30etik-18.30era
	Udaberrian eta udan	8.30etik - 21.00era

Zer EZIN daiteke egin?


Arau hauek ez betetzeak ortuaren erabilerarako baimena kentzea ekarriko du.



- Animalientzako tranpak edo jakiak erabili.
- Espezie exotiko inbaditzaileetako animaliak eta landareak sartu.
- Ortuaren jasotako produktuak saldu.
- Ortua bizilekutzat erabili.




- Txabolak, olanak, plastikoak, bidoia, jarlekuak, bananketak jarri. Zerbait berria jarri edota daudenak aldatzeko idatziz egin behar eskaria Udalean.



- Heskai motako zuhaitzak edota ondoko ortuei itzala egiten dietenak landatu.
- Espezie exotiko, inbaditzaile eta **transgenikoak**, lurra hondatu eta legez debekatuta daudenak landatzea.
- Nekazaritza ekologikoaren barruan onartzen ez diren herbizidak, pestizidak eta ongarrri kimikoak erabili.

Transgenikoa

Espezie bat transgenikoa da modu artifizialean sortu denean, ez modu naturalean.



- Animaliarik hazi, tranpak edo animaliak harrapatzeko jakirik jarri.
- Animaliak paseatu ortuen esparruaren barruan.



- Surik egin ortuen esparru osoan.
- Ureztatzeko ur-mahukarik erabili.
- Ur-hargunearen instalazioa manipulatu.



Hauk baimenarekin bakarrik egin daitezke:


- Ortua alokairuan eman, laga edo eskualdatu.
- Esparruan ibilgailuak sartu eta aparkatu.
- Ortuetara sartzeko giltzak beste pertsona bati utzi.

6. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Erabiltzaileen eskubideak

- Nekazaritza ekologikoari buruzko aurretiazko prestakuntza jasotzea.
- Lursail bat edukitzea:
 - egoera onean
 - ur-hargune batekin
 - lanabesak gordetzeko erabiltzaile guztientzako espazioarekin
 - eta nork bere ortuko produktuak kontsumitzeko aukerarekin.

Betebeharrak



- Bakoitzak bere nekazaritzarako oinarrizko lanabesak erostea.
- Udalak ortuei buruz antolatzen dituen ikastaro eta jardunaldietara joatea.
- Udalak eta baimendutako elkarteek antolatzen dituzten hezkuntzako jardueretan, erakusketetan eta bestelakoetan laguntzea.



Ortuan:

- Ortua egoera onean izatea eta zaintzea.
 - Ortua etenik gabe lantzea.
2 hilabete baino gehiago ortua erabili barik badago, baimena galduko da.
 - Ura modu arduratsuan kontsumitzea.
- Lurra Udalak zehaztutako irizpide ekologikoen arabera lantzea.
 - **Hondakin organikoak** ongarriztat erabiltzea.
 - Gainerako hondakinak kasuan kasuko edukiontzietara botatzea.
 - Erabiltzaileak hondatu edo apurtzen duena berak konpondu edo berria eskuratzea.

Hondakin organikoak

Landareen hondakinak eta pertsonen, abereen edo beste izaki batzuek sortutako hondakinak.

- Gune komunak eta instalazioak garbitzea.
- Pasabidetarako gordetzen den espazioa libre eta garbi edukitzea.
- Udaleko langileek edo horretarako baimena dutenek instalazioak banakoek zein guztiek erabiltzekoak– ikuska ditzaten uztea, araudia betetzen dela egiaztatze aldera.
- Udalak jardueraren arduradun gisa izendatutako pertsonaren jarraibideak betetzea.


7. NOLA ESKATU BEHAR DA BAIMENA?

Eskabideak aurkeztea (ikusi 1. eranskina)

BAOean Bizkaiko Aldizkari Ofiziala argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean.	Bilboko Udalaren Erregistro Orokorra (Ernesto Erkoreka plaza 12)	Barrutietako Bulegoetako Erregistroa	Egoitza elektronikoan (e-Udala)
			www.bilbao.eus (izapideak)
	Aurretiko hitzorduarekin Astelehenetik barikura, 08:30etik 13:00era		Zozketan parte hartzeko lotura: https://n9.cl/sbj9
	Beste bide batzuk, 39/2015 Legearen arabera		

Eskariarekin batera aurkeztu behar diren agiriak (ikusi 2. eranskina)

8. NOLA ESLEITZEN DA?



9. NOIZ AMAITZEN EDO BALIOGABETZEN DA BAIMENA?

Ortuak erabiltzeko baimena amaitzeko erak (ez da inolaz ere kalte-ordainik emango):

Baliogabetzea

Erabaki, lege edo araua baliorik gabe uztea.

- Baimena duen pertsonak bere borondatez uko egitea; horretarako, idazkia aurkeztu behar du udalean.
- Erabiltzailea hiltzea edota desgaiturik geratzea.
- Ados jartzea Udala eta eskatzailea.
- Ortua erabiltzeko 3 urteko epea amaitzea.
- Esleipena eragin zuten zirkunstantziak desagertzea.
- Udalak interes publikoko arrazoiak direla medio, edo baldintza-orri honetako baldintzak ez betetzeagatik baimena kentzea erabakitzen badu.

1. eranskina

OTXARKOAGAKO AUZOAN ORTU EKOLOGIKOAK ERABILTZEKO BAIMENAREN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKARIA

Izen-abizenak:

NAN:

Helbidea Txurdinaga-Otxarkoagako auzoan:

Telefono finkoa: Telefono mugikorra:

Helbide elektronikoa (jakinarazpenak egiteko):

E S K A R I A:

Txurdinaga-Otxarkoagako auzoan ortu ekologiko bat erabiltzeko BAIMENA emateko prozesuan parte hartzea.

Gobernu Batzordeak.....onartutako oinarrietan eskatzen diren baldintza zeintzuk diren badaki, eta denak onartzen eta betetzen ditu.

Bilbon, 2021koaren(e)an.

Eskatzailearen edo eskatzaileen sinadura:

Deialdi honetako oinarriak irakurri ditut eta onartzen ditut.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

PERTSONA ETA ERAKUNDE MOTAK	AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK
Bilboko biztanleak	<input type="checkbox"/> NANaren edo hura legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia. <input type="checkbox"/> Errolda-agiri edo ziurtagiri eguneratua. ¹
Desgaitasun fisikoa edo intelektuala duten pertsonak	<input type="checkbox"/> NANaren edo hura legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia. <input type="checkbox"/> Errolda-agiri edo ziurtagiri eguneratua. ¹ <input type="checkbox"/> Ezintasunaren ziurtagiria.
Langabezian denbora luzea daramaten pertsonak	<input type="checkbox"/> NANaren edo hura legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia. <input type="checkbox"/> Errolda-agiri edo ziurtagiri eguneratua. ¹ <input type="checkbox"/> LANBIDEK egindako ziurtagiria, denbora luze langabezian daudela eta horrela zenbat denbora egon diren erakusteko.
Irabazi asmorik gabeko elkarteak	<input type="checkbox"/> Elkartearen jardueren proposamena. <input type="checkbox"/> Irabazi asmorik gabeko elkartearen ordezkariaren edo ordezkarien (gehienez ere, 2) izendapena eta euren NANA. <input type="checkbox"/> Elkartearen erregistroan izena emanda daudela ziurtatzen duen agiria.

¹ Ziurtagiria posta elektronikoz eska daiteke: padron@bilbao.eus
 Interesdunak 2 egunetan jasoko du.
 Errolda-helbide bakoitzeko, eskabide 1 aurkeztu eta partzela 1 esleitu ahal izango da.

